

Oilo gorria

Oilo batek gari-alea topatu zuen bere oilategian. Gari-alea hartu eta oilategian galdetu zuen:

–Nork erein nahi du gari-alea?

–Nik ez!–erantzun zuen ahate zuriak.

–Nik ere ez!–erantzun zion ahate beltzak.

–Neuk ereingo dut orduan!–erantzun zuen oilo gorriak eta gari-alea erein zuen, lur harro-harroan.

Behin, garia hazi zenean, oilo gorriak oilategian galdetu zuen:

–Nork egin nahi du gariaz ogia?

–Nik ez!–erantzun zion ahate zuriak.

–Nik ere ez!–Erantzun zion ahate beltzak.

–Neuk egingo dut orduan!–erantzun zuen oilo gorriak eta ogi gozo–gozoa egin zuen gariaz.

Behin ogia egin zuenean, galdetu zuen oilo gorriak oilategian:

–Nork jan nahi du ogi gozo–gozoa?

–Nik!–erantzun zuen ahate zuriak.

–Nik ere bai!–erantzun zuen ahate beltzak.

–Ba ez, ez, eta ez. Nire txitekin jango dut ogi gozo–gozoa; zuek frogatu ere ez duzue egingo!

Anjel Lertxundi

*** Ipuina entzun eta gozatzeko**

*** Komiki bat egingo al duzu? Hiru biñeta, ipuina kontatzeko adina.**

*** Antzerkitxo bat ere egin daiteke handiek txikienen gelan antzezteko.**